

# BIGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B2 maila

## IDATZIZKO AZTERKETA

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **1h 10 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bi ariketa dauzka. Biak egin behar dira.</li> <li>• Bi irakurgai eta guztira 25 item.</li> <li>• Lehenengo ariketan item bakoitzak 1,6 puntu balio du; bigarrenean 0,6 puntu.</li> <li>• Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko.</li> <li>• Testuen luzera guztira: 750 hitz gehienez.</li> </ul>	30 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ariketa bakarra egin behar da eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira.</li> </ul>	40 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketa** horretarako eman zaizun **aparteko orrian**.
- Azterketa-**koaderno hau** ez da jasoko, **zuzetzat da**.

### 1. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderei.

**Aukeratu erantzuna.** Bakarra da zuzena.

### «FAKE NEWS» DIRELAKOAK IKASTETXEETARA HELDU DIRA

Adituek ohartarazi dutenez, nahiz eta beti egon diren buloak edo zurrumurruek, gaur egungo albiste faltsuak «azkarrago» zabaltzen dira eta «iraunkorragoak eta biralagoak» dira. «Dibulgazio kanal azkarrak dituztenez eta gazteak trebeak direnez, errazago iristen zaizkie», azaldu du Sylvie Perezek, Kataluniako Unibertsitate Irekiko Psikologia eta Hezkuntza Zientzietako ikasketetako irakasleak. Ikasketa horietako irakaslea den Jordi Peralesek nabarmendu duenez, askotan «albiste faltsu bera albiste izan daiteke urte batean, eta denbora bat geroago errepikatu, hori azaltzen duen ageriko arrazoirik egon gabe». Bi irakasleok adierazi dutenez, informazio ez-egiazkoaren eta egiaztatu gabekoaren «aldaera» berri horri ikasgeletan egin behar zaio aurre, ikasleari tresnak emanaz. «Eskola-testuinguruan, ikasleek oraindik ez dute gaitasun kritikorik albiste eta *fake news* edo albiste faltsua bereizten jakiteko», adierazi du Perezek. Hain zuzen ere, nerabegaroko hezkuntza-helburuetako bat dela diote biek eta, horrenbestez, Administrazioari baliabideak eta inplikazioa eskatu dizkiote helburu horren garapenean laguntzeko.

Iazko irailean egindako ikerketa baten bidez, antzeman zuten gazteen % 83,8k gezurra izan zen albiste bat sinetsi zuela, eta % 24k denbora-pasarako edukiak sortu zituela, hala nola blogak, bideoak, memeak eta artikulak. Teknologia da, neurri batean, albiste faltsuen hedapena azkarra eta birala izatearen erruduna. «Lehen ere zabaltzen ziren, baina ez zuten hain arin zirkulatzeko hainbeste kanal», azaldu du irakasleak. Gazteek helduek baino hobeto dakite tresna horien «parte bat» erabiltzen, Peralesek ohartarazi duenez, baina ez denak, ezta haien ahalmen guztiak ere. «Ba al dakite Instagram, TikTok eta beste sare sozial batzuk erabiltzen entretenezko? Bai, zalantzarik gabe. Baina ba al dakite dauden bilaketa-aukera guztiak erabiltzen, DuckDuckGo, Bing edo Google kasu? Erantzuna ez da hain positiboa», adierazi du irakasleak, eta ondorioztatu du nerabeek badakitela «bilaketa sinpleak egiten, baina ez konplexuak».

Bestalde, Ameriketako Estatu Batuetako hauteskunderi buruzko ikerketa baten arabera, 65 urtetik gorako pertsonak partekatzen dituzte albiste faltsu gehien, teknologia erabiltzeko dituzten zailtasunen ondorioz. Heldu gazteenek, haurren gurasoek edo haurren inguruko beste senide batzuek eskaini beharko lizkiekete jokabide-ereduak. Izan ere, senideek ere paper garrantzitsua dute albiste faltsuen aurka borrokatzeko, irakasten dutenaren arabera jokatuz. «Guraso garen aldetik, ez ditugu zabaldu behar ahoz nahiz baliabide teknologikoen bidez iristen zaizkigun informazio, albiste edo iruzkinak haien benetakotasuna eta egiazkotasuna baieztatu gabe», proposatu du adituak.

Eskolak gaitasuna eman behar dio gazteriarri «dokumentatutako zerbait eta iritzi soilak –eta batzuetan, besterik gabe, gezurrak– bereizteko». Peralesek dioenez, albiste faltsuei erantzun hezigarria eman behar zaie, «etikatik, balioetako prestakuntzatik eta informazio-eskubidearen errespetutik». Izan ere, haren ustez, gaur egun informazioa «lehen mailako eskubidea» da eta, beraz, «informazioa egiazkoa eta ulergarria dela eta iritzia askatasunez sortzeko aukera ematen duela bermatzeko gai izan beharko genuke». Etorkizuneko helduek eskubide hori exijitu ahal izateko, nerabeak «kontzientzia kritikoan prestatu behar dira», bukatu du.

## 1. ariketa. Aukeratu erantzuna

1. **Zer dio testuak albiste faltsuez?**
  - a) Gaur egungo gizartearen asmakizunak direla.
  - b) Gazteek zailago dutela albiste horietara heltzea.
  - c) Albiste bera ager daitekeela une desberdinetan.
2. **Zer uste dute Perezek eta Peralesek informazio faltsuaz?**
  - a) Ikasgela ez dela albiste faltsuak bereizten ikasteko lekua.
  - b) Administrazioak hartu behar duela parte gai horretan.
  - c) Ikasleek badutela ahalmena informazio horri aurre egiteko.
3. **Zer ondorio atera du Peralesek nerabeez eta teknologiaz?**
  - a) Batez ere, entretenitzen dituzten teknologiak erabiltzen dakitela.
  - b) Lehen ez bezala, argiago dutela zer den faltsua eta zer ez.
  - c) Gehienek badakitela denbora-pasarako edukiak sortzen.
4. **Nola borrokatu behar dute gurasoek albiste faltsuen aurka?**
  - a) Albiste horien faltsukeria zabalduz.
  - b) Benetako albisteak zein diren erakutsiz.
  - c) Jokaera egokiak erabiliz.
5. **Zer dio Peralesek informazio-eskubideaz?**
  - a) Balioa galdu duela informazio faltsuak direla eta.
  - b) Errespetatu egin behar dela albiste faltsuei erantzuteko.
  - c) Etorkizuneko helduek ez dutela inolaz ere exijituko.

**GOGORATU:**  
**ERANTZUNAK, ERANTZUN ORRIAN**

## 2. ariketa

**Hutsuneak bete.** Testutik zenbait hitz ezabatu ditugu. Erantzun-orrian aukera ezazu zenbaki bakoitzari dagokion hitza.

### EUKALIPTOAREN LANDAKETARI, MUGAK

Euskal Herriko basoetan paisaia-aldaketa sumatu da azken urteetan: eukaliptoek hartu dute pinudien tokia. Pinuan xingola marroiaren gaixotasuna agertu zenetik, ia 10.000 hektarea *insignis* pinudi **6** dituzte Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, eta horiek zeuden lursailen erdiak inguru eukaliptoz bete dituzte. Nagusiki, Araban eta Bizkaian hedatu da gehien espezie hori. **7** hori ikusita, eta hainbat elkartek egindako presioaren ondorioz, neurriak hartu dituzte lurralde batzuek. Bizkaiko Foru Aldundia izan da horietako bat: herrialdean eukalipto mugatzea eta bertako espezieak jartzea bultzatuko du; eta, **8**, jabetza pribatuko basoak erosteko plan bat antolatu duela **9** du. «Lehentasunezkoztat» jo du proiektua.

Aldundiak **10** du ez dituela diruz laguntzen eukalipto-landaketak duela hamabi urtetik hona, eta, neurri horri etorkizunean ere eutsiko diola nabarmentzeaz gain, orain «beste pauso bat» emango duela adierazi du. «Urrats gehiago egingo dira eukaliptoaren hedapena **11** eta, aldi berean, basoak espezie autoktonoekin berritzeko». Basogintza babesteko ezarriko duen planak bi **12** nagusi izango ditu. Batetik, diruz lagunduko du basoak modu jasangarriagoan kudeatzeko metodoak aplikatzea, baso autoktonoak kontserbatzea eta baso autoktonoak landatzea; eta, **13**, ez ditu finantzatuko ondoren eukalipto landatzeko egiten diren **14** sanitarioak.

Gainera, jabetza pribatuko basoak erosteko proiektu bat ere **15** du, «eskualde guztietan baso-berritze eta baso-lehengoratzeko proiektuak **16**». Nabarmendu du erosketak «definitzen» ari dela, **17**, aurreratu duenez, lau milioi euro jarriko ditu planerako.

Eukaliptoak **18** eragin ditzake bioaniztasunean eta ingurumenean, eta horrek kezka sortu du. Bizkaiko Aldundiak azaldu du ez dagoela lur pribatuetan eukalipto landatzeko mugak ezartzea babesten duen **19** juridikorik edo arauemailerik. «Praktikan ia ezinezkoa da partikular bati bere lurretan eukalipto landatzea debekatzea». **20**, Espainiako araudian eukalipto ez dago jasota espezie exotiko inbaditzaile gisa.

**21**, Gipuzkoako Foru Aldundiak ere egin du urratsa. Herrialde horretan ez dago hain **22** eukalipto, pinudiak ordezkatzeko beste espezie batzuk **23** dituelako eta «prebentzioz» jokatu nahi izan duelako. Hala, basoko espezieak mozteko gutxieneko tartea hogeita bost urtera luzatzea erabaki du —eukaliptoak mozteko zikloa beste espezie batzuen bano laburragoa da—. Adierazi duenez, **24** da «basoen kudeaketa jasangarriaren eredu baten alde» lan egitea. Neurria **25** sartu ostean egiten diren landaketei eragingo die arauak; orain arte, hamar urterekin moztu zitezkeen.

BASTIDA J. *Berría*. 2021eko maiatzaren 2a. Egokitua

**2. ariketa. Aukeratu hutsuneak betetzeko hitz egokia**

6. a) bildu  
b) erein  
c) bota  
d) hedatu

7. a) Eskatera  
b) Joera  
c) Lehia  
d) Harrera

8. a) alderantziz  
b) ezinbestez  
c) badaezpada  
d) horretarako

9. a) hunkitu  
b) iragarri  
c) ukatu  
d) atzeratu

10. a) gogorarazi  
b) isilarazi  
c) galarazi  
d) entzunarazi

11. a) ohartarazteko  
b) garbiarazteko  
c) geldiarazteko  
d) agerrarazteko

12. a) aurkikuntza  
b) prestakuntza  
c) berrikuntza  
d) sorkuntza

13. a) bestetik  
b) baizik  
c) alderantziz  
d) ordea

14. a) mozketa  
b) hizketa  
c) zozketa  
d) sariketa

15. a) mugatuko  
b) abiatuko  
c) eragotziko  
d) aldenduko

16. a) astintzeko  
b) ordezkatzeko  
c) garatzeko  
d) arakatzeko

17. a) azkenik  
b) baina  
c) ostera  
d) berez

18. a) urraketak  
b) onurak  
c) ahuleziak  
d) kalteak

19. a) tresna  
b) zaintza  
c) oreka  
d) zerga

20. a) Bide batez  
b) Edonola ere  
c) Dena dela  
d) Izan ere

21. a) Haatik  
b) Horrela  
c) Harrezkero  
d) Halaber

22. a) berrituta  
b) estututa  
c) erroldatuta  
d) zabaldua

23. a) ihardetsi  
b) gaitzetsi  
c) lehenetsi  
d) salbuetsi

24. a) asmoa  
b) eskaria  
c) ikurra  
d) oztopoa

25. a) auzian  
b) indarrean  
c) aurkibidean  
d) bidean

**GOGORATU:**  
**ERANTZUNAK, ERANTZUN ORRIAN**

### Oharrak

- Ondoren, **idazmenerako ariketa** duzu.
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten: **ez da zuzenduko irakurri ezin denik.**
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
  - Eskatutako guztiari erantzun diozun.
  - Ideiak garbi adierazi dituzun.
  - Euskara nola erabili duzun: egokitasuna, zuzentasuna eta aberastasuna.

**ZIRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.  
EGIN ARIKETA HORRETARAKO EMAN ZAIZUN APARTEKO ORRIAN.**

Gaia kontuan hartuta, **iritzia** eman behar duzu **herriko aldizkarian**, *Herritarren txokoa* sailean.  
**Gutxienez 125 hitz** idatzi behar dituzu.

**GAIA:** Zenbait herritan aukera ematen diete gazteei kale-zurruta dela-eta jarritako isunak lan sozialak eginez ordaintzeko.

Zure herriko guraso batzuek neurria ondo ikusten dute eta Udalari neurri hori hartzeko eskaera egin diote.

Udalak herritarren iritzia ezagutu nahi du herriko aldizkariaren bitartez.

Idatzi zer ari den gertatzen herrian, zer iritzi duzun aipatutako neurriaz eta esan neurri hori hartzeak zer ondorio ekar dezakeen.

Zirriborroetarako lekua



Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

**IVAP**

HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA

■ **1. ariketa.** aukera anitzeko galderak.

■ **Irakurgaia:** «FAKE NEWS» DIRELAKOAK IKASTETXEETARA HELDU DIRA

1.	C	2.	B	3.	A
4.	C	5.	B		

■ **2. ariketa.** hutsuneak bete.

■ **Irakurgaia:** EUKALIPTOAREN LANDAKETARI, MUGAK

6.	C	7.	B	8.	D
9.	B	10.	A	11.	C
12.	C	13.	A	14.	A
15.	B	16.	C	17.	B
18.	D	19.	A	20.	D
21.	D	22.	D	23.	C
24.	A	25.	B		